

Bilbao 0,7

2007
Informazio Aldizkaria 5. zenbakia

Uribitarte, 18
48001 Bilbao
tel.: 94 420 48 38
fax: 94 420 50 23
mdelegacion@ayto.bilbao.net

Bilbok bere gastu arruntaren %0,7 bideratzen du garapenerako lankidetzara



CARMEN GARCÍA. EMAKUME ETA GARAPENERAKO LANKIDETZA SAILEKO ZINEGOTZI DELEGATUA:



"0,7a hasiera baino ez da"

G: Azkenean, Bilbok bere Gastu Arruntaren %0,7 bideratuko du Garapenerako Lankidetzara...
E: Lehenengo aldiz heldu gara zifra horretara. Eta abiapuntua baino ez da; izan ere, portzentaje hori ez da nahikoa, argi eta garbi. Are gehiago, gobernu guztiak ere beren aurrekontuko zenbateko hori gordeko balute garapenerako lankidetzarako, ez litzateke nahikoa izango. Guk gehiago nahi dugu; eta askoz gehiago espero dugu Bilbo solidario eta konprometituz.
G: Hala ere, Bilbok garapenerako lankidetzara bideratzen duen aurrekontuak era ikusgarrian egin du gora azken urteotan...
E: Hamabi urtean, zortzi aldiz baino gehiagoz

biderkatu ditugu lankidetzarako fondoak. Batez bestekoa ezarriko bagenu, horrek esan nahi du aldi horretako urteko azkubidea %64koa izan dela ia-ia. 2001. urtean, harkubidea, 800.000 euro pasatzeko aurrekontua kudeatzen genuen; aurtentzen, hiru bider handiagoa da, nabarmen.

G: Zeintzuk dira 2007. urterako kontuak?
E: Bi milioi eta erdi euro baino gehiago. Zehatzago esanda, 2.549.462 euro, hau da, Udalaren Gastu Arruntaren %0,7, zehatz-zehatz. Aurrekontu horren hiru laurdenak Garapenerako Nazioarteko Lankidetzara Programetara bideratzen dira; gainerakoa, berriz, Sentsibilizazio eta Hezkuntza, Ekintza Humanitario, Larrialdietarako Laguntza eta beste-lako programetara bideratzen da.

Garapenerako Lankidetzara (Gastu Arruntaren %0,7) 2.549.462 Euro		
Nazioarteko Garapen Lankidetzarako P.:	1.907.096€	%75
Garapen Sensibilizazio eta Hezkuntza P.	209.462€	%8
Ekintza Humanitario eta Larrialdietarako Laguntza:	148.588€	%6
Bestelakoak:	113.294€	%4,5
(Nazioarteko Erakundeak, Koordinadora...)		
Ekintza Propioak:	96.022€	%3,5
Plan Zuzendariaren Garapen eta Azterketa:	75.000€	%3



Emakumearen Etxearen proiektuaren aldeko babesa, Saharan

Emakumearen Etxeak erabilera ugari ditu: emakumeen arteko batzar-zentroa eta emakumeen trebakuntza zentroa da, aholkularitza tekniko ematen du, eta Emakume Sahararren Batasun Nazionalaren eskualdeko egoitza ere bada. Azpiegitura horietako lehenengoa Smara wilayan inauguratu da.

Emakumearen Etxea Emakume Sahararren Batasun Nazionalaren ekimena da, eta bere helburua da emakumeek herrialdeko bizitza sozial, politiko eta ekonomikoan duten partaidetza sustatzea. Proiektu honen lehenengo azpiegitura abenduaren 14an jarri zen martxan, Smara wilayan. Tindoufeko errefuxiatu sahararren kanpamenduak duen antolamendu administratiboko bost *wilaya* edo probintzietako bat da Smara.

Smarako zentroa eraikitzeko lanak bi urte iraun du, eta Bilboko Udalaren lankidetzara izan du. Azken hori ez da mugatu arlo finantzarioa; gainera, aholkularitza tekniko eta trebakuntza arloko aholkularitza ere eman die Saharako emakumeei, etengabeko trebakuntzako ikastaroak eskainiz kudeaketa eta kontrol administratiboa eta giza eskubideekin zein emakumeen eskubideekin lotutako gaietan.



Finantziarioa
Bilboko Udaleko Emakume eta Garapenerako Lankidetzara Sailak 100.000 euro eman dizkio proiektu honi, berau eraikitzeko erabili diren bi urteotan. 2007an, Sailak garapen horrekiko konpromisoari eutsiko dio, 20.000 euroko aurrekontuarekin. Gainera, beste 70.000 euro (Larrialdiko Laguntzako partidari dagozkionak) bideratuko dira Euskadik Saharari laguntza emateko sortutako III. Karabana Solidarioa. Otsailan abiatuko da karabana hori Euskaditik.



Dena dago emakume sahararren esku

Mendebaldeko Saharak 265.000 km²-ko azalera dauka, hau da, Iberiar Penintsularen erdia, gutxi gorabehera. Lurraldearen bi herenak Marokok ditu okupatuta. Tindouf eskualdeko kanpamenduetan errefuxiatutako populazioa bost kanpamendutan dago banatuta, *Wilaya* edo probintzietan oinarritutako antolakuntza administratibo eraginkorrek. Emakume eta adin txikikoek osatzen dute kanpamendu horietako populazioaren zati handi bat, izan ere, gizonetako asko askatutako guneeetan daude mobilizatuta edo, bestela, atzerrian egiten dute lan. Kanpamenduetako antolakuntza eta

bizitza sozial osoa emakumeen esku dago. Gauzak horrela, emakume saharar gehienek eurei dagozkien lan kolektiboetan parte hartzen dute: laguntza ematen dute haurtzaindegi, eskola, kontsultategi eta ospitaleetan; ortuan egiten dute lan, pulzuetatik ura garraiatzen dute etxean erabili ahal izateko, azientak zaintzen dituzte, eta janaria egin eta banatzen dute... Emakume Sahararren Batasun Nazionala da emakumeak modu kolektiboan ordezkatzen dituen erakundea, eta gizarte saharar berrian emakumeen presentzia eragotzeko borrokan ari dena.

Bilbok Kubaren garapenaren aldeko nazio batuen programa bitan hartzen du parte

Nekazaritza eta abeltzaintzaren garapenerako proiektu bat Holguín udalerrian, eta beste bat beiragintza-tailer bat sortzeko Habanan. Programa biek generoko ikuspegia dute, eta landutako esparruetara emakumeak ere sartzea eta bertan sendotzea bilatu nahi da. Holguinen, modu iraunkorren, okela eta ortuarien produkzioa handitu nahi da, ingurumena errespetatuko duten teknikak eta materialak izango dituen prozesu baten bitartez. Sinatutako hitzarmenak urtebeteko indarraldia dauka, eta Bilboko Udalak 21.500 euroko diru-laguntza emango du.



Kubako hiriburuko programari dagokionez, lanbide tradizionalak berreskuratzeko asmoa duen Lanbide Heziketako Tailer-Eskola bat sortzeko proiektuaren parte da. Kasu honetan, Beiragintza Tailerra da, Habana Zaharreko Herrigune Historikoaren ondare arkitektoniko eta kulturala zaharberritzeko proiektuaren barruan. Bigarren hitzarmen honek ere urtebeteko indarraldia dauka, eta Bilboko Udalak 18.900 euroko finantziario ematea aurreikusi du.




EVA SÁENZ DE UGARTE. Euskadi-Kuba Elkartearen burua.

"Emakumea soldatapeko lanaren esparru guztietara heldu dadila lortu nahi dugu"

Une honetan, Euskadi-Kuba Elkarteak emakumeek lanean duten eskubide eta aukera berdintasuna babesteko proiektu batean parte hartzen du. Programa hori Kubako Emakumeen Federazioarekin garatzen da (GKE horrek estatus kontsultibo dauka Nazio Batuen Kontseilu Ekonomiko eta Sozialean, eta Kubako emakumeen %80tik gora bitzen du). Proiektua San Miguel del Padrón, Regla eta Habana hirian garatzen da, zenbait taldeekin: Kubako Emakumeen Federazioko langileak, kolaboratzaileak eta boluntarioak, Kreditu eta Zerbitzuetako kooperatibistak, sindikatuak, masataldeak eta komunikabideak. Urtebeteko iraupena dauka eta Emakume eta Garapenerako Lankidetzara Sailaren finantziarioa dauka (53.204 euro), bai eta 73.425 euroko tokiko ekarpena ere.

Emakumeen Hiritartasun Ekonomikoa, eztabaidagai


Emakumeek baliabide ekonomikoak eskuratzeko duten benetako aukera, normalean, aurkako egoera batean ematen da (testuinguru sozioekonomiko-agaratik zein aurreiritzi sexistengatik sortutako aurkako egoera). Emakumeen eskubide ekonomikoaren eta emakumeen hiritartasun ekonomikoaren gaiari buruz eztabaidatu zen Bilbon, urtarrilaren 30 eta 31n, Emakume eta Garapenari buruzko Jardunaldien hirugarren edizioan. Jardunaldi hori Bilboko Udaleko Emakume eta Garapenerako Lankidetzara Sailak eta Eusko Jaurlaritzako Lankidetzarako Zuzendaritzak antolatzen dute. Jardunaldiotan, arlo horretako nazioarteko esperientziak aurkeztu ziren, emakumeen jabeakuntza prozesuan Hegoaldeak duen ikuspegia emanez.




Nalu Faria. SOF-Sempreviva Organização Feminista (Brasil):
"EKONOMIA FEMINISTA KONTRAESANEAN DAGO EREDU NEOLIBERALAREKIN"
Teoria ekonomiko feministak zalantzan jartzen ditu ekonomiaren paradigmatik, metodoak, merkatuaren zentraltasuna eta lanaren banaketa sexuala. Emakumeen ikusezintasunaren eta marjinazioaren konstatazioak garatzen du.



Ana Felicia Torres. Alforja Ikerketa eta Argitalpen Zentroa (Costa Rica):
"EMAKUMEEN HIRITARTASUN EKONOMIKOAK LAU ZUTABE DITU"
Hauexek dira: lana eta enplegua; diru-sarreraren sorrera; baliabide produktiboetarako sarbidea, kontrola eta jabetza; eta ondarea. Elementu horiek ahalbidetzen dute emakumeen hiritartasun ekonomiko eta agente ekonomiko aktibo gisa duten aintzatespena, bizitza pertsonal eta sozialaren esparru guztietan.



Gloria Díaz. Manuela Ramos Mugimendua (Peru):
"MIKROKREDITUA GARAPENERAKO TRESNA DA"
Bere erakundeak mikrokreditua eta aurrezkia sustatzen du, CrediMujER Banku Komunalak bultzatuz (10.000 bezero baino gehiago ia). Modu horretan, emakume pobre gehienek lortu ezin duten baliabidea izateari uzten dio kredituak, eta garapenerako eta pobrezia kontrako borrokarako tresna eraginkor bihurtzen da.



Mertxe Brosa. Xochilt Acalt Emakumeen Zentroa (Nikaragua):
"JABEKUNTZARIK GABE EZ DAGO LANDA-GARAPENIK"
Esperientziak behin eta berriro erakutsi digu ezin dela landa-garapenik lortu, emakumeek ez badute jabeakuntzarik lortzen produkzioaren esparruan. Landa giroko emakume antolatua gai dira baliabide ekonomikoak eta ondare-ondasunak sortzeko, euren eskubideen kontzientzia hartzen duten bitartean.

